

Osoko Bilkurak, 2017ko otsailaren 28an egindako bilkuran besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

16.- EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA. - Aho batez onartzen da ondorengo mozioa:

MARTXOAK 8 - EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

“Martxoak 8 Emakume langileen nazioarteko eguna hurbil daukagun honetan Hernaniko Udalbatzari zenbat eskaera eta adierazpen egin nahi dizkiogu.

Lehenik eta behin, urteetan zehar feminismotik egin den lana azpimarratu nahi dugu, aurrerapauso asko eman badira, feminismoak egindako lanari eskera izan baita. Hala ere, oraindik asko dago egiteko, horren isla gordina da egunero pairatzen dugun indarkeria matxista, lehen lerroan kokatu behar duguna.

Zenbaitetan aipatu izan dugun moduan emakumeok jasaten dugun zapalkuntza egiturazkoa dela adierazi nahi dugu, hau da, jendartearen egituraren emaitza dela eta antolaketa ekonomikoan, politikoan eta ideologikoan uztartuta dago. Egiturazkoa da patriarkatua erabat errotuta dagoelako gure jendartean eta antolaketa eredu hori sistema kapitalistaren ezinbesteko zutabea delako.

Antolaketa honen oinarrian daude etxeko lanak eta zaintza lanak, ezkutuan geratzen dira, ez dira errekonozitzen eta ordaindu ere ez. Lan hauek nagusiki emakumeek egiten dituzte. Ez da kasualitatea kontraturik gabe lanean dauden % 73'2 emakumezkoak direla; lan-merkatuan emakumeek gizenezkoek baino % 36'2 gutxiago kobratzen dutela eta lanaldi partzialean dauden % 80'9 emakumeak direla. Lan merkatuak emakumeak bigarren mailako langile gisa erabiltzen ditu, hain lekua, nagusiki, etxean dagoela defendatzen duelako. Sistema kapitalista eta patriarkatua gainditzeko beharra inoiz baino ageriago agertzen zaigu, bizitza ekonomiaren erdigunean jarri ahal izateko, zaintza-lanak errekonozitzeko, sexuaren araberako lan banaketarekin bukatzeko, bizitza duinak bizi ahal izateko.

Etsipenera eramaten gaituen egoera honen aurrean baina, argi dugu zein den bidea, feminismotik jendarte hau eraldatzea. Horretarako beharrezkoak dira, eraldaketara eramango gaituzten esparruak sortzea, emakumeen etxea kasu; jatorri, ideologia, adin ezberdinetako emakumeen arteko aliantzak sortzeko, eztabaidarako, hausnarketarako, emakumeen ahalduntzerako.... Urteetan Berdintasun Kontseilutik aldarrikatu dugun espazio hau martxan da. Ia urtebete pasa da prozesu parte hartzailea abiatu genuenetik, eta bide honetan elkarrekin pentsatu, amestu eta bide berri bat ireki dugu, emakumeen arteko loturak indartu direlarik. Beharrezkoa da halaber, horrelako espazioak sostengatu eta babestea. Hori dela eta, honako hau eskatzen dugu:

Emakumeen Etxearen ekipamendu egoki baterako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta pertsonalak bermatzea.

Indarkeria matxista jendarteak dituen arazo larrienen artean kokatzea, eta hari aurrea hartzeko eta aurre egiteko beharrezko bitartekoak jartzea.

Emakumeek bizi duten errealitatea aintzat hartu eta bizi baldintza duinak bermatzeko politikak garatzea.

Hernaniko Mugimendu feministak antolatzen dituen ekimenetan parte hartzea.”

Jakinaren ganean egoteko eta dagozkion ondorioak izateko bidaltzen dizut erabakia.
Dena den, udalbatzarraren akta onartu gabe dagoela ohartarazten dizut.

Hernanin, 2017ko martxoaren 8an.

IDAZKARIORDEA,